

Ballet Contemporani

"Ballet Contemporani", Barzelona'ko dantzari taldea da, ta bost urte auetan Diputazio'aren laguntzaz dantza befi sortzaile bezela ari da lanean.

Euskaldun bat ari da baletari oyen artean, eta orain Egubefi opofetan etxaldera etofi da egun batzuetarako. Lenagotik ezaguna genuen Donostia'ko dantzari au, bere izena Iñaki Landa. Zertan ari dan orain, zer asmo ta lanetan diarduen yakin nayan, Txistulari aldizkarirako zenbait galdera egin dizkiogu. Ona emen, ba, Landa baletariakin egingdako elkar izketa.

Nun asi zintzen dantzak ikasten, eta norekin edo zein taldeetan eman zenituen dantzarako lenengo ufatsak?

I.Landa'k - Kaputxioneekin izan nuen lenbiziko ikastaldia "Juventud Antoniana" delakoan. Gero, befiz, "Argia" Taldean urte batzu etan burutu nituen dantza sayaketak, eta azkenik, "Goizaldi" Taldeko dantzari bat izan nintzen.

Bañan orain zauden Taldean Baleta egiten dezu. Baleta dantzarako lenbiziko ariketak eginbeahezkoak diren ezkerro, nunbaiten ekin zenion Baleta ikasketari. Nun izan zan?

I.Landa'k - Donostian bertan izan zan. Urte ayetan Folklore dantzak ikasten ari nintzenean batera Peter Brown'ekin ere egin nituen nire asierako alegiñak.

Ez zera Lainez'ekin batera ari? Lainez'ek Donostian osatutako Dantzataldean, uste det, sartu zintzela.

I.Landak'k - Bai, egia da. Lainez asi zanean, ni neu ere arekin batera "Anexa" izeneko taldeakin dantzalagun izan nintzen. Baña, dadakizunez, gero "Anexa" sakabianatu egin zan, eta ni neure lanetara itzuli nintzen. Aldi batez zearo utzi nuen bertan beera dantza jokua.

Zer deritzazu Donostian jayo

zan "Anexa'ri" buruz? Zer mailata-ko Baleta zan, edo zer elburu zenuten zuen asmoetan talde artako dantzariek?

I.Landa'k - Holanda'ko Baleta befi edo gaurkoa zan, eta "oniriko" edo "ametsetako forma ta irudikizunez" ornitutako dantza mota zan. "Anexa" taldea egunero "sorbefitzen" ari zan dantza forma ta antzertiakin batera ta elkarlotuta egiten zuten emankizuna. Alakotxe befogei dantza sorbebi asmatu ziren urte ayetan.

Urte batzuetan bertan beera utzi zenuela dantza lana, esan dezu. Noiz itzuli zintzen befiro dantza jokura?

I.Landa'k - Dantza utzita luzaro xamar jardun izan nuen nire ogibideko lanetan. Baña befiro ere dantzaren erlabioak zirikatuta, Dantza lanera itzultzeko asmoa aintzat artu nuen. Ta Bruselas'era joan nintzen lenbizi. Zenbait ikasketak egin nituen Belgika'ko iriburuan. Irakaslea Jacques Sausi izan zan. Delako "Baganova" Ante edo Teknika bidetan asiera, beintzat, izan nuen.

Ta gero

I.Landa'k - Gero... Doitxefi'ra joan nintzen, Stuttgart'era. Baleta ikusi, ta ufengo Wuppertal'era Pina Bauch'en erabide befia ezagutu nuen. Orduan Alemania'ko iri ortan dantza formarik nabarmenena ta aurérakoyena erakusten zan. Wuppertal'en gorago esaniko Dantza-Antzertia zan aipu aundikoena Europa'n.

Ta noiz jo zenuen Barzelona'ra, orain Katalunya'n, esan dezunez, geratu zera-eta?

I.Landa'k - Europa'ko giroa ikusita, bereala artu nuen Barzelona'rako erabakia. Ta Barzelona'ra etofi nintzenean, Lainez Katalunya'ko iriburura iritxi ta Dantzako Istituto Nagusian ziarduen Barzelona'ko Diputazio'ari esker. Lainez

eta bere emaztea oso onartuak ziren dantza irakaskintzan. Oyekiyardun ondoren, Barzelona'ko Lizeo'an sartu nintzen eta Baleta egiten jaifitu nuen. Ta azkenik, "Ballet Contemporani" Barzelona'n bertan lanean ari dan laguntaldean nago. Amar dantzari gera ta gogoz eta oraindaiño ondo konpontzen gera baterako bide befi asmaketan.

Zer teknika darabilzute?

I.Landa'k - Orain Marta Graham amerikafarena ta aldika beste batzuek ere erabiltzen ditugu.

Zenbat urte daramazkizu Balet ortan

I.Landa'k - Urte terdi, gutxi gorabeera. Ni balet ontan sartu nintzenean, beste lagunek iru urte terdi zeramaten beren eginkizunetan. Aufera doa gure laguntaldea. España guzian barba agertu ditu bere dantzak. Baina atzefian ere agertu izan ditu. Beljika'n, Bruselas'en eta Lieja'n, erakutsi izan ditugu gure emankizunak. Alemania'n Düsseldorf'en. Prantzian Dijon'en eta Arlés'en. Dakizunez, dantzialanak ez du irabazi aundirik, ez etekifirik asko. Ogibide zekena ta mufia da. Bañan, esan bezela, Barzelona'ko Diputazio'ak eskeintzen digu bere laguntza ta naikoa dala, laguntza esan dezakegu.

Eusko Dantzaz, zer esango zenuke? Gure Dantzaz iritzirik ba al dezu, nola edo ala izan?

I.Landa'k - Edonungo izkuntza da dantza, guziekiko izkuntza da, ta guziek ulertzen dute. Eusko Dantza ere, ba, guk besteeri itz egiten diegun izkuntza da.

Zer uste dezu geyago Eusko Dantzaz?

I. Landa'k - Iztueta'k darabilen metodoa edo irakasbidea, lenbizi aldairak banan banan eta ufatsak ere banan banan ikasi, ta gero sailean eta sortetan musikari egoki dagokanez lotu: orixe uste det izan ditekeela, denok indartu bear genduken



irakasbidea. Beti oraingo lan eta sayaketa nagusia, berebat, auxe izanzen, litzake, nirekiko, nola edo ala lztueta'ren aldaira ta ufatsak yardutez biztu ta birbiztu. lztueta'ren irakasbidea, eguneroko zeregiñez, "gaurkotu".

Bestarik ezer esango al zenuke

I.Landa'k - Nire Eusko Dantzaren ikasketarako iritzia onelakoa izanzen litzake: adibidez, "gurpil" delako aldaira ori artu, ta gurpila bera dan bezelaxe ikasi ondoren, orixe bera geyagotu, edertu, ta al dan azkeneraiño burutu. Eusko dantzaren noraiño korapiloa arildu diteken, eta artaraiño zearo edabanatu.

Bañan ori ez litzake efikoya izango, ala bai?

I.Landa'k - Efikoya, efikoya dan mailan arildu diteke, ta dantza efikoya beretik edo bere jatofitik ateratzen ba'da, ederti mailan jokatutu.

Buka dezagun, ba, izketaldi au onenbestez. Argi azaldu digu lñaki Landa'k dantzak batzutan sor dezaken eragiña. Zorionak eta dantzabidean ainbeste gorabeera ondoren, berak burubidetan darabilen elburura oso osoan iritxi dedin, gogoz opa diogu.

B'dar Gaizka

TXISTUS A 125 PESETAS

En plástico, recomendable para principiantes y muy útiles para Ikastolas, Colegios y Sociedades Folklóricas. Se sirven contra reembolso, previo pedido al constructor:

Elias Pradera Larrocea
Biarritz 7-1.º int. izda. Teléf.: 432 97 98
BILBAO-2